

## **Mila esker, Martin Ugalde**

Paulo Agirrebaltzategi

*Zabalik*, 1988-03-30: II.

ARGI Ara idazkitxo bat eraman eta handik ordu gutxitara ikusi ahal izan dut zure artikulua igandean, *El Diario Vascon*. Ikusi orduko irakurri dut. Gai berbera erabili dugu; zenbait hitz nagusi ere berdina... "Euskara eta Askatasuna"ri heldu diogu biok.

Mila esker, bide berean elkarrekin bateratu garelako. Zuk badakizu, ez da ustegabeko topo egitea izan; BATEGINIK kanpaina bultzatzeko elkarrekin –beste hainbesterekin batera– bazkalduak ere bagara. Bide beretik ibiltzea erabakia genuen.

Baina beldur nintzen inurriena gertatuta ote zitzaigun. Zu luma ederreko gizona zaitugu, eta nik baino askozaz eleganteago esango zenuke guzti hau. Denok ikusia da: inurri-andanak, prozesio luzeak joan etorrian... Beren bidea markatua dute, eta han ari dira bide beretik aurrera eta atzera denak lanean beharraldirako hornidurak egiten. Halako batean, zasta! badator animalia handiagoren bat –sarritan bere adimen harroarekin esperimendu bihurriren bat egitera–, eta bere hankatzarraz desegiten du inurrien bidea. Hor hasten dira orduan denak nora ezean, urduri, bidea berriro aurkitu ezinik.

Horrelako zerbait gertatu zaigu seguruneik. euskararen bidea "bat eginik" irekitzea erabakia genuen hainbat inurri euskaldunoi. Eskabadora handiren batekin etorri zaizkigu, markatua genuen bidea desegin, eta harriz, enborrez, abarrez, oztopatzera.

Une batez bidegalduta ote geunden susmoa eduki dut. Baina hona hemen berriro bide beretik, batean BATEGINIK egiteko, "Euskara eta Askatasuna"ren bidea ebakitzeko.

Esker mila!